

EUROHIRIA. Gogoeta prozesuaren ondorioak biltzen dituen liburua aurkeztu dute

Baiona-Donostia eurohiria «Europako eraikuntzaren laborategia da»

Bi lurraldeetako harremanak garatzeko moduz irizpiderik ez dagoela nabarmendu dute

Iker Aranburu | DONOSTIA

Baiona-Donostia eurohiria «Europako eraikuntzaren laborategia da», bi eskualdeen arteko harremanez gogoeta egin duten adituen arabera. Bi urteko gogoeta prozesuaren ondorioak biltzen dituen liburua atzo aurkeztu zuten Donostian, Eusko Ikaskuntzaren XV. Biltzarren barruan.

Ander Arzelus Gipuzkoako Diputazioko Mugaz Gaindiko Elkarlaneko teknikariak ziurtatu zuenez, Lapurdiko kostaldeak eta Gipuzkoako Bidasoaldeak eta Donostialdeak osatu duten 600.000 biztanleko metropolia «Europako mapean azalduko da 20-30 urte barru».

Jardunaldien ondorioetako bat izan da Europako Batasunak mugaz gaindiko harremanak bultzatu nahi dituen arren, harreman horiek gauzatu behar duten moduz irizpiderik ez dagoela. Horrek behartu ditu Baiona-Donostia eurohiriko arduradunak beren kabuz bidea egiteari. «Gobernatzeko modu berriak bilatu behar ditugu; ez gaude alkate bila. Inon idatzita ez dagoen eredia kudeatu behar dugu, eta horretarako gaur egungo instituzio guztien elkarlana behar dugu», adierazi zuen Arzelusek.

Bost jardunaldi

2000ko urriaz geroztik Eurohiriaren Garapenerako Mugaz Gaindiko Agentziaren aginduz Eusko Ikaskuntzak antolatutako bost jardunaldietan arituta koaren berri eman zuten Jean Michel Larrasquet eta Maryse Toffolo ikerlariak. Bidarten, hiri nortasunaren eta hiritarren inplikazioari buruz aritu ziren.

Donostian, 2000ko abenduan, Lapurdi eta Gipuzkoa arteko harreman historikoak jorratu zituzten eta ohartu ziren, Espainia eta Frantziaren arteko borrokez gaindi, bi lurraldeetan artean harreman sendoak izan zirela.

Aurtengo urtarrilean, Angelun, eurohiria osatzeko muga juridikoak izan zituzten aipagai, eta, Larrasquetek azaldu zuenez, ondorioztatu zuten eredu juridiko garbirik ez dagoenez, «esperimentazioa» zela irtenbidea.

Miarrizteko jardunaldietan, apirilean, aditu zerrenda zaba-



GARI GARAIALDE
Baiona-Donostia eurohiriari buruzko gogoeten liburua aurkeztu zuten: Ander Arzelus, Jean Marius Solano, Ana Toledo, Maryse Toffolo eta Jean Michel Larrasquet.

Izenburua: 'Baiona-Donostia Euskal Eurohiriari buruzko gogoeta jardunaldiak'.
Egilea: Jean Michel Larrasquet, Sabino Aiestaran, Letizie Delorme eta Txomin Peillen. eta beste 36 txostengile.
Argitaletxea: Eusko Ikaskuntza, Azkoaga koadernoan sailean.
Argitaletxea: Gaztelaniaz eta frantsesez nagusiki.
Salneurria: 2.300 pezeta/ 14 euro.

lagoa elkartu zen, dinamika sozioekonomikoak aztertzeke.

Azken topaketak joan den uztaillean izan ziren Hondarribian. Lurralde antolakuntza izan zuten hizpide, alde teorikotik zein praktikotik. Larrasquetek aipatu zuenez, bistan geratu zen Frantziako kultura instituzionala hanka-motz geratu zitzaizela.

Jean Marius Solanok, Euskal Eurohiriaren Garapenerako Mugaz Gaindiko Agentziaren izenean, gogoratu zuen 1993an hasi zirela harremanetan Baiona-Miarrizte-Angelu aglomerazioa eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Solanok ziurtatu zuen parte guztien aldetik borondate sendoa dagoela eurohiria sendotzeko, eta horren adibide gisa aipatu zuen zaborrak tratatzeko lortu duten akordioa.

LABURRAN

ZINEMA

Euskal zinematik ez dagoela esan du Gutierrezek

Euskal Herrian zinemak izan duen ibilbide laburra dela eta, euskal zinematik bere horretan ez dagoela esan zuen atzo Juan Miguel Gutierrez Eusko Ikaskuntzako kideak, besteak beste, «eremuak kopiatzera jo duelako». Hala ere, Gutierrezek uste du euskal zinema sor daitekeela, «artearen beste esparruetatik, tradizio handiagoa dagoenetatik zenbait elementu estetiko hartu eta zinemara egokitu daitezkeelako, nortasun propioa emanez».

GIZARTE ZIBILA

Ingurumenari buruzko goi bilera eskatu dute

Gizarte zibilaren ahotsari buruzko atala lan taldeen apartazioarekin amaitu zen atzo goizean. Besteak beste, Euskal Herrian ingurumenari buruzko goi bilera gitea proposatu zuten. Halaber eskatu zuten instituzioek eta gizarte mugimenduek itun bat sinatzea lurralde antolatetari buruz eta eragileen arteko elkarriketa zabaltzea.

ITZAIUNKA?
MAHAI JOKOA **æk**
Bizkaiaren ganeko 2.000 itaun-erantzun
GAZTETKO eta HELDUENTZAT

Zer dakizu Bizkaiaz?

- Zer esaten joko "ogigaztaia"?
- Nor zan Martina Ibaibarriaga?
- Zein da euskera hobea, Markina ala Zornotzakoa?

2.000 itaun, geure herrialdea olgetan ezagutzeko.

Eskaerea egiteko orria

DNI / CIF
ENA / IFK.....

Persona y telefono de contacto
Harremanetarako, izena eta telefonoa

.....

Dirección
Helbidea

Código postal
Posta kodea

Provincia
Probintzia

Forma de pago
Ordaintzeko era

Banku bidez(20 zenbaki)

Entidad bancaria
Bankuaren izena

BIZKAIKO aek Salneurria: 5.000 pta./ 1.000 ogerleko/ 30,05 € (B.E.Z. barge)

Eskatu egizu zeure herriko aek-ren euskaltegian, edota:
• 94 415 52 57 edo 94 415 95 12 telefonoetan • Posta-e: ldola@aeknet.net • 94 416 65 55 faxa •